



**- AUTONOMIA PERTSONALA GARATZEKO KOMUNITATE-
ETA EGOITZA-LAGUNTZARAKO UDAL-ZENTROA.-**
BASAURIKO UDALAREN ERAKUNDE AUTONOMOA

LANPOSTUAREN KODIFIKAZIOAN EGINDAKO AKATS MATERIALAREN ZUZENKETA, PRESIDENTEAREN 2023ko AZAROAREN 17ko ETA 2024ko URTARRILAREN 30eko EBAZPENETAN, EGONKORTZE-PROZESUEN BARRUAN 4.3 KODEA DUEN C2 AZPITALDEKO ERIZAINZAKO LAGUNTAILEAREN LANPOSTUA BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN KAUTELAZKO ETA BEHIN BETIKO ETETEAREKIN LOTURIK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIKO LAN ARLOKO SALAK 2023.10.17an EMANDAKO EPAI IRMOAREN ONDORIOZ (1718/2023 ZENBAKIDUN ERREGUTZE-ERREKURTSOA). EPAI HORREK LANPOSTU HORI BETETZEN DUEN LANGILEA FINKOTZAT JOTZEN DU, ERAKUNDEAREN ERREKURTSOA EZETSIZ.

Erakunde Autonomoaren presidenteak, 2024ko apirilaren 4an, Ebazpen hau onetsi du; honela dio xedapen-zatiak:

Lehena.- Presidentearen 2023ko azaroaren 17ko eta 2024ko urtarrilaren 30eko Ebazpenetan (2023/11/29ko 229 zenbakidun BAOn eta 2024/02/27ko 27 zenbakidun BAOn argitaratu dira, hurrenez hurren) hautemandako akats materialak zuzentzea, egonkortze-prozesuen barruan 4.9 (eta ez 4.3) kodea duen C2 azpitaldeko erizaintzako laguntzailearen lanpostua betetzeko hautaketa-prozesuaren kautelazko eta behin betiko etetearekin loturik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salak 2023.10.17an emandako epai irmoaren ondorioz (1718/2023 zenbakidun erregutze-errekurtsoa). Epai horrek lanpostu hori betetzen duen langilea finkotzat jotzen du, Erakundearen errekurtsoa ezetsiz.

Bigarrena.- Interesdunari Ebazpen hau jakinaraztea, dagozkion errekurtsoen berri emanez.



Hirugarrena.- Hartutako erabakiaren berri langileen ordezkarietara eta prozedurako gainerako interesdunei ematea.

Kontseilu Errektoreko presidentea.